



# FANEROPTERO ARRUNTA

## *Phaneroptera falcata*

### TAMAINA

35 mm hegalekin

### ITXURA

Faneroptero arrunta oso itxura lerdeneko mattinsalto berdea da, puntuazio iluna du eta gorritz titakatua da. Hegalak gorputza baino askoz luzeagoak dira, antenak gorputza baino lau aldiz luzeagoak direlarik.

## NOLA IDENTIFIKATU?



### NOIZ?

> Uztaitetik urrira

### NON?

- > Sasi eta zuhaixketan
- > Harrobietan
- > Larreetan
- > Soropil idorretan



Hegoaldeko faneropteroa eta Oti berdearekin nahas daiteke.

## AURKEZPENA

### ESPEZIEAREN EKOLOGIA

Gehienik belarjalea da.

Ugalketaren ondotik, emeek beren arraultzak zuhaixka hostoetan erruten dituzte, aranondo basatietan batez ere. Arraultzek negua igarotzen dute eta ekainean ateratzen dira. Larbak helduarora iristen dira 6 aldiz azalberritu ondoren. Faneroptero arruntaren soinua apala da, metro batetik gora ez da entzunten.

## BEHARRAK, MEHATXUAK ETA ERRONKAK

Kezkatua delarik, faneroptero arruntak hainbat metroraino hegan egin dezake. Distantzia luzeak egiteko ere gai da, batez ere bero delarik, jarduera azkarrena duen garaietan.

Badirudi laborantzaren intentsifikazioak, pestizidek eta eremu urbanizatuen hedapenak espeziea arriskuan jartzen dutela.

Faneroptero arrunta ingurune lehorretako espezie adierazgarria da.